

EBAZPENA, 2026KO EKAINAREN 5EKOA, TURISMO ETA OSTALARITZAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KANPINAK ETA KANPAKETA-TURISMOKO BESTE MODALITATE BATZUK ARAUTZEN DITUEN UZTAILAREN 30EKO 396/2013 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURRETIK.

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak aurreikusita dauka Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta beste kanpaketa-turismoko modalitate batzuk arautzen dituen uztailaren 30eko 396/2013 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiten hastea.

2022ko uztailaren 15ean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurar ekainaren 30eko 6/2022 Legea argitaratu zen EHAAn. Lege horrek testu berri batean sartu eta txertatzen ditu xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arloko arauak, eta honako hau ezartzen du 11. artikuluan:

"1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentroak edo organoak kontsulta publikoan bilduko du, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik, herritarren iritzia.

2. Aurretiazko kontsulta prestaketa-fasean sartzen da, kontuan hartuta herritarrekiko interakzio-izapide bat dela, xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek beren iritzia emateko aukera izan dezaten, behar adinako epean eta hamabost egunetik beherakoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu aurretik.

3. Aurretiazko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentroak edo -organoak bete ahal izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita. Hala, herritarrei berariaz gonbidatuko zaie informazioaz iritzia eman dezaten, honako hauei buruz: araua onartzeko beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak, konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

4. Testu juridiko arauemaile bat aldeztu aurretik onartu ondorengo araugintza-prozeduraren instrukzio-fasean, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak bete egin dezake, memorietan jasota utzita, artikulua honetan herritarren parte-hartzeari buruz jasotako eskakizuna".

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrien iritzia jasoko da ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz, hura onartzeko beharrari eta egokitasunari buruz, arauaren helburuei buruz eta egon daitezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileei buruz.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta kanpaketa-turismoko beste modalitate batzuk arautzen dituen uztailaren 30eko 396/2013 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egin aurreko kontsulta publikoaren izapidea bete da, herritarrek parte hartzeko eta planteatzen den arauari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.





Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta kanpaketa-turismoko beste modalitate batzuk arautzen dituen uztailaren 30eko 396/2013 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egitea herritarrei 15 baliodun egunez, ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Irekia gobernu irekiaren plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

BIGARRENA.- Ebazpen honen eranskina onartzea, herritarrek ekimenari buruzko iritzia emateko behar den informazioa .

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean

CLARA NAVAS ROMANO

TURISMO ETA OSTALARITZA ZUZENDARIA

**ERANSKINA**

EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzan turismo-arloko eskumena duen sailari dagokio, besteak beste, turismo-sektorea antolatzea. Kanpinen eta kanpaketa-turismoaren arloan Euskadin indarrean dagoen esparru arautzaileak kanpaina-dendetan oinarritutako sailkapen-sistema bat du, eta sistema hori ez dator bat sektorearen bilakaerarekin eta Europan nagusi diren erregulazio-jardunbideekin. Gaur egungo sailkapen-sistema beste autonomia-erkidego batzuetan eta inguruko herrialdeetan oso zabaldua dagoen izarren ereduaz bestelakoa denez, Euskadi posizio bereizian dago, eta horrek murriztu egiten du erabiltzaileek alderatzeko duten gaitasuna. Arau-dibergentzia horrek helmugaren lehiakortasunari eragiten dio, eta desabantailak sor ditzake dagoeneko estandar ezagunak eta homogeneoak hartu dituzten lurraldeen aurrean. Beraz, beharrezkoa da horri buruzko erregulazio berri bat egitea, indarrean dagoen esparruak ez baitie erantzun egokirik ematen sektorearen benetako premiei eta erabiltzaileen itxaropenei.
ONARTZEAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Kanpinak sailkatzeko sistema egokitu beharrak justifikatzen du aldatzeko dekretu-proiektua; izan ere, izarren arabera sailkapena da erabiltzaileentzat zabaldua eta ulergarriena. Estandar horiekin bat datorren eredu bat hartzeak erraztu egingo du establezimenduen konparagarritasuna, indartu egingo du gardentasuna eta aukera emango dio Euskadiri erreferentziako beste helmuga turistiko batzuen baldintza lehiakorretan kokatzeko. Aukera garrantzitsua da mugaz gaindiko mugikortasun gero eta handiagoko testuinguru honetan, non sailkapen-sistemen argitasuna eta homogeneotasuna funtsezko elementu bihurtu baitira turistek erabakiak hartzeko.



ARAUAREN HELBURUAK	Arauaren helburu nagusia Euskadiko kanpinen sailkapen-sistema eguneratzea da, esparru arautzaile koherente bat ezarriz, Estatuan eta Europan hedatutako estandarrekin bat datorrena. Arauaren helburua da erraz ezagut daitezkeen kategorietan oinarritutako sailkapen-sistema bat txertatzea, izarren eredua, establezimenduen arteko konparagarritasuna erraztuko duena, erabiltzaileentzat eskuragarri dagoen informazioa hobetuko duena eta sektorea erreferentziako beste turismo-helmuga batzuen baldintza lehiakorretan kokatuko duena.
POSIBLE DIREN IRTENBIDE AUKERA ARAUTZAILEAK ETA EZ- ARAUTZAILEAK	Aurreko ataletan azaldutako alderdiak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da araudi espezifiko berri bat egitea, eta ez dago bestelako irtenbiderik. Aldez aurreko azterketa-prozesuan, arau berri bat onartzeko hainbat aukera baloratu dira. Lehenbizikoa indarrean zegoen erregulazioa ez aldatzea eta bere horretan uztea zen. Aukera hori baztertu egin da, kanpaina-denden bidezko sailkapenean oinarritutako egungo esparrua zaharkituta geratu delako, eta ez duelako mekanismo argi, homogeen eta ulergarri eskaintzen erabiltzaileentzat. Horrek eragotzi egiten du erreferentziazko praktikekin bat datorren eredu baterantz aurrera egitea, eta sektorearen lehiakortasuna mugatzen du. Kontuan hartutako beste aukera bat izan zen indarreko dekretua ordeztuko zuen erregulazio integral berri bat egitea, kanpinen eta kanpaketa-turismoko gainerako modalitateen antolamendua osorik . Hala ere, aukera hori baztertu egin da; izan ere, gaur egun, Turismoaren Lege berri bat izapidetzen ari da, eta bere gain hartuko du esparru arautzailea erabat berrikusteko funtzioa. Azkenean hautatu den aukera indarreko dekretuaren aldaketa partzial eta mugatu bat egitean datza, sailkapenaren erregulaziora eta hari zuzenean lotutako manuetara mugatuta. Aukera honen bidez, estandar hedatuarekin lerrokatutako kategoria-sistema bat sar daiteke, behar-beharrezkoak diren artikulak soilik egokituz, kanpinen eta kanpatzeko beste modalitate batzuen



	gainerako araubide juridikoa aldatu gabe. Beraz, irtenbide proportzionatua da, sailkapena eguneratzeko helburuan ardaztua.
--	--